

Serantes mendian, 2016 abenduaren 23an

Olentzero maitea:

Serantes mendian nago, zure zain. Arratsalde osoa eman dut zure bila, baina ez zaitut aurkitu. Etxean arazo larri-larriak dauzkat. Horregatik etorri naiz hona, zure laguntza behar dudalako. Ez zara agertu, ez dakit non demontre sartu zaren eta horregatik gutun hau idaztea erabaki dut. Zuk ongi dakizunez, Maialen naiz eta beste pertsona batzuk bezala, nire bizitza ez da erraza izan. Ainhoaren jaiotzak gure bizitzak guztiz aldatu zituen. Medikuek berria eman zigutenetik jakin genuen down sindromea zuen alaba izatea ez zela bide erreza izango. Ainhoa jaio eta bi urte geroago, egun batetik bestera, aitak etxetik alde egin zuen eta egun horretatik ez dugu ezer gehiago jakin berari buruz. Aita joan zenetik ama ez da berdina, triste baino tristeago bizi da eta hori dela eta, ni naiz Ainhoaz arduratzen den bakarra. Ama garbitzailea da eta irabazten duenarekin ez digu ematen luxuzko bizimodua eramateko. Ez dakit amaren papera ondo betetzen ari naizen, baina ahal dudan guztia egiten dut, hau ez da erraza. Ni Ainhoarekin joaten naiz eskolara eta joandako astean klasean arazoak izan ditu. Gabonak heltzeaz daude eta denok zu etortzeko irrikan gaude, baina Ainhoaren gelan ez da hori gertatzen. Ainhoak kontatu zidan gelan zeudela zuri gutun bat idazten irakaslea agindu zuelako eta bapatean iskanbila hasi zen. Hegoik esan zuen dena gezurra zela, zu ez zinela existitzen eta orduan, denak oihuka hasi ziren. Ainhoa negarrez atera zen eskolatik egun horretan eta negarrez jarraitze du bere logelan oraindik. Nik ez dakit zer egin Olentzero, ez dit sinisten, ez du nirekin hitz egin nahi, eta oso haserre dago nirekin. Ez dut nahi urte guzti hauetan lortu duguna pikutara joatea. Lagundu mesedez, bion artean lortu behar dugu zuegan konfiantza berreskuratzea berriro. Espero dut ahal duzun guztia egitea, ziur lortuko duzula. Ideiaren bat burutzen bazaizu badakizu non aurkitu ahal naizun.

Eskerrik asko

Maialen